


Gazteriaren “barne espazioaz”



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Musukoa ezartzera behartzen gaituzten garai hauetan, gogora etorri zait Henri Michaux olerkari frantsesaren testu bat, *Tatouages* (tatuaiak) izenekoa, *Ecuador* bidaia liburuan argitaratu zuena 1929an (Gallimard). Horretan, autoreak adierazten du “oihaneko Indioak” miragarriak direla: “Turkoek” bezalaxe ulertu dute giza aurpegi soila berez “lizuna”, “ez sanao” eta “basatia” dela, eta usaia hartu dute begitartea tindatzeko adiskideen etxera bazkaltzera joatean. Gizarte horietan, bisaia beztitzen da espiritualago eta umilago agertzeko besteen aurrean, eta norberaren “barne espazio” intimoa kanporaturik erakusteko, hurkoaren errespetuz. Michaux segur zen aurpegi tatuaiak Mendebaldeko gizartean ere hedatuko zirela, baina ez, mende bat berantago, maskarak dira ezarri aurpegiak estaltzeko, eta horien giblean gordez gure burua, bata besteari ezkutatu diogu gure “barne espazioa”, jendetasunez baino gehiago beldurrez eta menpekotasunez.

Herstura horretan, are loriagarriago zait ikustea artista gazteek ez dutela dudarik beren “barne espazioak” denen bistara hedatzeko, bihotz-zabaltasun osoz. Garazi aldean bereziki, azken urte eta hilabete hauetan, nasaiki partekatu

du bere baitako aberastasuna gazteriak, denon gozameneko.

Pentsatzen dut hemen Iribarne ahizpei eta beren lagunei: Leire Iribarne distirantak bizipoza eta maitasuna zoragarriki zabaldu du hainbat musika proiekturen bidez, batez ere Diabolo Kiwi talde funkyarekin, Amaieur Epher, eta Julen eta Allande Etxeberri adiskideekin. Maia Iribarnek Paxkal Irigoienekin eskainiko digu *Bañolet* seriea, Xofaldia Produkzioak eta Kanaldudek ekoizturik; 2021eko Durangoko Azokako Sormen beka jaso du telesail horrek, eta jadanik eskuragarri da *Bloñ*, *Bañolet kantuz* diskoa, filmaren soinu banda. Eta bestalde, hor dugu ere Maiak, Amaia Hiriartek eta Elena Hairak osatu hirukotearen *Habia* disko aparta.

Izendatu nahi nituzke ere bai bi idazle gazte: Amaieur Epher, lehenik, Maiatz argitaletxean *Profeten iruzurra* plazaratu duena 2021eko otsailean. Liburu zapartatu horrek Alexander funtzionarioaren gorabeherak kontatzen dizkigu –gora baino gehiago, beherak–, ironia beltzez eta arraileriaz zorrotzu estiloan. Epherrek jakitate sozial, filosofiko eta politiko handia erakusten du, eta irakurlea gogoarazten zorionaz eta etsipenaz, biziaren bilakaeraz eta etikaz, bi irri-

barreraren artetik. Hausnarketa satirikoen bideratzeko, nahasten ditu eleberri, saikera, poesia eta antzerkiaren berezitasunak, obra sailkagaitza eta ustekabekoa eskainiz.

Xan Idiart donazahartar gazteak, berriz, plazaratu du *Teresaren mendekua* ipuin bilduma Elkar argitaletxean, Iparluma sailean, 2021eko buruilean. Talentu narratibo izugarria erakusten du Idiartek, giro franko bereziak sortuz, pertsonaia ikaragarriak biziaraziz, eta gain-gainetik, intriga harrigarri baino harrigarriagoak asmatuz. Istorio bakoitza testuinguru arrunt edo errealistan hasten da, Gipuzkoan edo Garazin, eta tipus tapas, ti-tau, ikaragarriko bihurtuena hartzen du kontakizunak, suspense hagitxasungaitza eraikiz, eta irakurlearen irrika hondarrea beti manera txundigarrian asez. Idiartek gainera, maisutasunez darabiltza hiztegi oso aberatsa eta hizkuntzaren sotiltasuna.

Gogo-bihotzak, zirrarak eta sentiberatasuna bata besteari ezkutatzera bultzatzen gaituen jendarte honetan, sanotasun beldurgarriaren izenean, milatan eskertzekoa da bere “barne espazioa” oparitzen digun gazteria, espiritualki bezain umilki, Michaux-k aipatu Indioek bezala, guzion salbagarri. ●